

IRAKURKETA ZAILTASUNEI AURREA HARTZEKO SOFTWARE DIDAKTIKO BATEN DISEINUA ETA EBALUAZIOA

Tesiaren egilea: Ainara Romero Andonegi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

Tesi-zuzendaria: Carlos Castaño Garrido (UPV/EHU) eta Margarita Córdoba Perez (Universidad de Huelva)

Tesiaren laburpena:

Irakurketaren ikaskuntza-prozesua jarraitua den heinean, haren bereganatzearen arrakasta aurre-irakurketako abilezien arabera aurreikus daiteke. Hortaz, aurre-irakurketako abilezia horietan antzematen diren zailtasunek aukera ematen dute aurrerantzean irakurketa-arazoak izateko arriskua duten haurrak identifikatzeko. Ebidentzia zientifiko gehien jaso duten dislexiaren arrisku-seinaleak hauek dira: kontzientzia fonologikoa, hitzezko oroimena, kontzientzia alfabetikoa, hartze/adierazpen hizkuntza eta idatzitakoaren kontzientzia. Seinale horien identifikazio goiztiarrek aukera ematen dute prebentzioan oinarritutako esku-hartzeak abian jartzeko eta, horrela, irakurketaren ikaskuntza-irakaskuntza formala hasi aurretik arriskua gutxitu edota ezabatu daiteke, irakurketaren bereganatze egokia bultzatuz.

Doktoretza-tesi honetan dislexiaren arrisku-seinale horien aurrean esku hartzeko euskarazko erreminta bat diseinatu eta garatu da: Berni hezkuntza-softwarea. Lau eta bost urte bitarteko haurrek izaten dituzten aurre-irakurketa zailtasunak hobetzeko jokia da. Gainera, Haur Hezkuntzako irakasleek etorkizuneko irakurketa-zailtasunei aurrea hartzeko euskarazko baliabide bat izan dezaten nahi izan da. Horrela, tesian, batetik, softwarearen garapenean burututako diseinu pedagogikoa eta informatikoa zehazten dira, eta, bestetik, hezkuntza-jokoaren bertsio lokala zein online bertsioa jasotzen duen web orriaren berezitasunak deskribatzen dira.

Bestalde, doktoretza-tesi honetan, Berni softwareak aurre-dislexia seinaleetan eta aurre-irakurketako abilezien hobekuntzan duen eraginkortasuna ebaluatzeko ikerketa ere aurrera eraman da.

Analizatutako populazioa Bizkaiko 7 ikastetxetako lau eta bost urteko 417 ikaslek osatzen dute. Ikasle guztietatik 43k aurre-dislexia seinaleak azaltzen zituzten. Horietatik, 23 haurrek Berni softwarea erabili zuten eta beste 20k ez. Gainera, zailtasunik ez zuten eta ausaz aukeratutako beste 42 ikasle ere ebaluatuak izan

ziren. Berni softwarearen jarduera guztiak burutzeko haurrek astero 20-25 minutuko bi saio eta guztira 7-8 aste behar izan zituzten.

Softwareaz aritu ziren haurren eta aritu ez zirenen test-postest konparaketan, esku hartzean parte hartu zutenek zailtasunak hobetu edota gainditu egiten dituztela frogatzen da. Izan ere, kontzientzia fonologikoa eta hitzezko adimen-abilezietan lortzen dituzte hobekuntzarik nabarmenenak, hain zuzen ere, dislexiarekin erlazio zuzenenak dituzten abilezietan. Emaitzak baikorrak dira baita hartze- eta adierazpen-hizkuntzari eta idatzitakoaren kontzientziari dagozkien abilezien kasuetan ere. Hala ere, ez da argi geratzen ezagutza alfabetikoaren gaineko eragina.

Aurreko guztiaz gain, haurren aurre-irakurketako abilezien test-postest konparaketan, Berni softwareaz aritutako haurrek aurre-irakurketako gaitasun orokorra hobetzen dutela frogatzen da.

Laburbilduz, Berni dislexiaren arrisku-seinaleak gutxitzeko diseinatu eta garatu den hezkuntza-softwarea da eta ikerketa honetan seinale nagusiak hobetzen dituela frogatzen da. Beraz, Berni softwarearen bitartez irakurketaren ikaskuntzarako haurrek behar dituzten abileziak sendotzen dira, irakurketa-zailtasunak gutxituz edo ekidinez.